

ttipi-ttapa

1991.eko Abenduak 5

75. zenbakia

dohain banatzen da



**HITZEGINDAKOAZ ALDE
GUZIAK KONFORME**

ttipi-ttapa

URTEKARIA



HERRIZ HERRI, URTEKO ARGAZKI ETA BERRIRIK NAGUSIENEN BILDUMA

KOLABORAZIO EZBERDINAK (IRAKASKUNTZA, OSASUNA, LAN MUNDUA...)

MAHAI INGURUA: AGROTURISMOA, ESQUALDERAKO SOLUZIOBIDEA?

ESQUALDEKO KIROL MUNDUARI ERREPASO ZABAL-ZABALA ETA KULTUR-AGENDA

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "Matxinbeltzenea Euskal Etxea inauguratu zuen Bortzirietako Euskaltegiak (IKAk) Lesakan".
Aitor Arozena
-
- 26 ELKARRIZKETA:** Juan Cruz Alli: "Bera eta Lesakan industrialdeak antolatzeak lehentasuna du guretzat".
Joxemanuel Irigoien
-
- 28 KIROLAK:** "Emakumezkoen I. Nafarroako Herri Kirol txapelketa burutu zen Elizondon".
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 4.750 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgenti zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	109400
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943)464622
Doneztebe (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarain	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Botikak

► **Abenduaren 6an**, Arantza, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Abenduaren 7-8an** Lesaka, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Abenduaren 14-15ean**, Etxalar, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

Deialdiak

► **IGANTZI**, abenduaren 19an arratsaldeko 6etan Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, abenduaren 12an arratsaldeko 5etan Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA**, abenduaren 13an, arratsaldeko 5etan, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, abenduaren 13ean arratsaldeko 7etan Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, abenduaren 18ean arratsaldeko 7etan Etxalarko Euskara Batzordearen bilera.

Erakusketak

► **ELIZONDO**


Abenduaren 12a arte, Arizkunenea Kultur Etxean, Burlatako Kubera margolariaren margo erakusketa.

Abenduaren 13tik Urtarrila bitarte, Arizkunenea Kultur Etxean, Valeriano Lezeta margolariaren erakusketa.

Kontzertuak

► **LESAKA**, abenduaren 6an, Atxaspi ostatuan, Pikutara eta Ze Arraio taldeekin rock kontzertua.

Bota bertsoa



Jon ABRIL

Gaia: Konstituzioa

Neurria: Hamarreko Haundia

Abenduak sei Konstituzio nazkantean urteurrena espainolistek ospatzen dute izugarrizko berbena jarri zioten garai haretan konstituzio izena botatu zuten "demokrazia" izan beharko zuena lege berri bat jarri beharra oraingoari etena.

Euskal Herriak noizerako berea demokrazia ta gu bezela Katalunia Baltikak ta Kroazia gai hau dagola polemikaz bene benetan hazia espainol izateak neretzat ez du batere grazia noizerako izango dugu guda hau irabazia

AGENDA

Zinema

▷ DONEZTEBE

Abenduaren 6, 7 eta 8an, "Bailando con lobos".

Abenduaren 14 eta 15ean, "Poli de guardia".

▷ LEITZA

Abenduaren 6an, "Las aventuras del baron Munchausen".

Abenduaren 8an "Dick Tracy".

Abenduaren 13an, "¡Ay Carmela!".

Abenduaren 15ean "Los rescatadores" eta "¡Ay, Carmela!".

Kontzertuak

▷ GOIZUETA, abenduaren 7an, Kanka, Kearrak eta Pikutara taldeekin rock kontzertua.

Antolatzailea: Goizuetako Gazte Asanblada.

Gastronomia

LENGUADO EDO MIHIARRAINA LARANJA ERARA

Osagaiak

4 lagunendako:

4 mihiarrain arrazio, 100 gr. gurin, 100 gr. leka, laranja zumoa bi baso, arrain salda bi baso, perrexila eta irin pixko bat.

Mihiarrainak garbitu eta



Gontzal Redondok emana
KATTU Jatetxea - LESAKA

azala kendu. Gatzez eta piperrez ornitu eta irinetik

pasatu. Zartagi haundi batean gurina bota eta mihiarrainak gainean paratu. Buelta eman eta laranja zumo eta arrain salda baso bana gehitu.

Su motelean denbora batez eduki eta zumoa edo salda gehiago behar badu bota, baina kopuru berdinetan.

Ontzi batean paratu; perrexila xehatuarekin eta lekekin apaindu.

Baserriko feria

▷ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 4.800 pzta. **Zerrigizena** (95-100): 145 pzta/kilo **Urdamak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

▷ BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....560
1.koa.....520
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....530
2.koa.....490
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizenak: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390/400 Pzta./Kg. Ka-

nal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 26.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 40.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

✳ Zure ingurua klase guzitako inektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA



Europako lehena ostalaritzarako garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



▶ Axun Irazoki
Zugarramurdiko leze eta zerri zaindaria

- ▶ **Zerriak, bi ala lau hanketakoak?** Lauekoak fidagarriagoak ikusten ditut.
- ▶ **Lezean lan egin ala zerriak bazkatu?** Edozeini gosea ekentzea polita da: zerriak bazkatu.
- ▶ **Zein adinetako jendeari gustatzen zaio gehiago lezeak?** 25-40 urtetakoei.
- ▶ **Zikiro-jatea ala gaupasa?** Gaupasa.
- ▶ **Oporrak pasatzeko, Amerika ala Asia?** Asia ezagutu dut eta aunitz gus-tatu ere; Amerika ezagutzen dudanean emanen dizut erantzuna.
- ▶ **Ensalada ala zopa?** Ensalada haundi bat uda eta negu.
- ▶ **Herrian besta egin edo Bordatxorat joan?** Herrian, Bordatxo ez dut maite.
- ▶ **Abestu ala dantzatu?** Abestu.
- ▶ **Ezkondu, elkarrekin bizi ala neska zahar?** Neskazahar gelditu !!!
- ▶ **Patxaran ala arnoa?** Arno gorria ga-siosakin.
- ▶ **Euria ala elurra?** Elurra (ez banago kotxe baten bolantean).



Tatie Danielle da komedia honen izen originala.

▶ ¿Que hacemos con la abuela?

Etienne Chatillier
Frantzia 1991

Frantzes zu-zendari honek duela bi urte ko-media luze eta aspergarri bat igorri zigun titulu luze batekin baita "*La vida es un largo rio tranquilo*". Hala ere, jende frankori gustatu

egin zitzaion.

Bigarren hau hobea da. "*Tatie Danielle*" –izen originala–kome-di arrotz beltza dugu; amona za-har baten egiazko gaiztokeriak. Zahartzaroan jakin-tza eta errespetua lotuak baldin ba-daude, filma honetan dena alde-rantziz gertatzen da.

Militar baten

alarguntsa den honek, bere itxu-raz baliatuz, in-guru guztia mar-tirizatu egiten du bere neskamea p i x k a n a k a -pixkanaka hil e-razi arte.

Bere gisako neska gazte ba-ten konplizitate-a-rekin, inguruko jende guztien harremanak laz-ten dituzte, ezin gehiagorako

egoera batetara ailegatu arte.

Egitan be-rezia suertatzen da atso zahar ho-nen lana.

MARIANO



**AFRO
REGGAE
ZOUK**

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA




**Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza**

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

**BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA**

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA



GOIKO

Ricardo de Leon, Nafarroako Gobernuak Ongizate Sozialerako kontseilaria bildu zen Azaroaren 16an inguruko alkateekin zonaldeko erresidentzien arazoa aztertzeko eta plangintza aintzinerara ateratzeko. Bertzalde, egun berean **Arkupeak elkarteak** omenaldia egin zuen Beran, 540 bazkide inguruk parte hartu zutelarik meza eta besta horretan.



KARMELE

Euskal prentsaren mahaia paratu zen Azaroaren 28an Lesakan, bertako feriak zirela eta. Argia aldizkariaren urtekaria eta egutegiarekin batera ezin zen TTPI -TTAPA hamabostekaria faltatu



Bertako Garapenerako Laguntzailei kontratua eten

Nafarroako mendialdean dinamizazio lana egin behar zuten 11 Bertako Garapenerako laguntzailetatik 6eri uste-kabea kontratua eten egin zaie. Pertsona hauek, bertze 406en lagunen artean aukeratuak izan ziren, 4 froga pasatuta gero. Ondoren, 10 hilabete t'erdirako kontratua egin zien ITGVk, «Juan de Goyeneche» Ofizio Etxearen barnean.

Orain, 6 pertsona hauei kontratua etetea,

kalte handia egin zaie eta momentuz, egoera konpontzeko Nekazaritza Zuzendaritzaren eskeintza baten esperoan daude.

Beraien ustez, *“uler-tezina da mendialdeko garapenerako egin den inbertsioa, batez ere jendea kontratatzen, horrela desaprobatzea”*.

Azkenik, langileek *“egoera larri honi irtenbide bat bilatzeko nahia eta borondate ona”* adierazi dute, bi aldetako konpromisoa betetzeko.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



BERAKO AZKEN UDAL BATZARRAZ

Berako Udaleko azkeneko Batzarrean etxe eta karrika zenbaiti buruzko proposamen ezberdinak aurkeztu dituzte Udaleko bi taldek. Independiente taldea eta Eusko Alkartasuna izan dira proposamen horien aurkezleak. Batzar horretan Independentiak azaltzen dituzten arrazoiak ez dira onartuak izan bertze taldeen aldetik. Talde honek, hau da, Independentiak, nahiko lukete, aspal-diko etxe bat, Udalak bereganatu dezan, gero, urratu, lurrera bota eta plaza bat zabaltzeko edo egite-

ko.

Proiektu eta proposamen hori eta bertze zenbait ere aintzina ateratzeko, nahi lukete ere dire-lako "normas subsidiarias" horiek aldatu. Bainan, Beran, EAK gauzak horrela behar direla ikusten ez duelarik eta bertze ikuspegi edo begiradabat ematen dioelarik arazo hoieri, aurkeztu eta proposatu du bertze aterabide bat. Eusko Alkartasunaren proposamen horrek sei botu aldeko izan ditu eta bortz Independentiak, galduz, aurrera atera da arazo hori.

EAK dio orain dela bi urte, guti-gorabehera, onartu zirela Berako "norma"

horiek, eta, gainera, kontu haundia eduki zela Alzate eta Berako inguru zaharrendako, hondamenik eta aintzinako itxura on eta politak galdu ez zitezen.

Hain zuzen eta konkretuki, norma horiei esker, Herriko Etxeko plaza, Foruen plaza eta egin beharreko edo nahi litzatekeen "Gernikako arbolaren plaza" alde batetik, eta bertze aldetik, emandako obren baimena "Antsona" etxeari, "Txurrut" etxea eta deitzen zaion "casa de la curva del estanco"-ren nagusiekin hartutako akordioarekin, eutsi zaio eta hobetu aintzinako karrika,

etxe eta plazen itxura ederrari. Ipurdiz gora etxeak botaz ezbaitira arazoak konpon-tzen, erroa eta ar-razoia bilatuz baizik.

Erran bezalabada, EAK proposatu zuen errespeta zitezen norma eta gauza horiek denak, aldeko botuak izan dituelarik.



Jon Gortari Ugarte

ISPILU EBASLEEI

Joan den azaroaren 22an, Zimeldiko erreka bide-tik (Lesaka-Etxalar tarte) karretera nagusira ateratzeko du-

gun ispilua berriro ere desagertu zen. Oraingo hau egunargiz eta hiru lagunen artean egin zuten. Azkeneko lau urteotan, desagertzen den 3. ispilu da. Dirudenez, batzuk gus-tokoak dituzte hone-lako ispiluak beren muturra ikusteko. Ispilu horiek Etxalarko Udalak ordaintzen ditu eta bide honetatik arriskurik gabe ateratzeko beharrezkoak dira, ez bada nahi, trailer batek hartu eta aintzinean eramatea.



Miren Karmele Tolosa

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak Antena kolektiboak eta banakakoak Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Ikastolak proiektu berria aurkeztu guraso eta bazkideei

Bertzalde, Arkupeak Elkarteak omenaldia eskeini zien herrietako delegatuei

ROMAN HARRIBILAGA

Labiaga ikastolako Bil-tzar Nagusiak ezaguterazi zien eraikuntza berrien oinarritzko egitasmoa, azaroaren 21ean egin zen ezohizko Batzarrean elkartutako 120 baino gehiago guraso eta bazkideei.

Derrigorrezko Hezkuntzako Bigarren maila euskaraz ematea da lortu nahi den helburua, ikasleak Altzateko ikastetxean kokatuz eta eraikuntza berrietan ttikienak.

Proiektuaren ezaugarriak Funtsean, behe solairuko bi erakuntza eginen dira Eztegarra pilotalekutik hurbil 2-6 urte arteko haurrei egokituak, 8 gelekina bata eta erabilera anizterakoa bertzea, gehi bi gela eta sotorekin beharbada. Parke bat ere eginen da, es-

540
bazkidek
hartu
zuten
parte
bestan.



tankez hornitua. Aferako aurrekontua 39.480.000 pztatakoa da.

Hala ere, zenbait al-daketa izanen du egitasmoak, datorren abenduaren azken asterako prest egonen den behin betikoan adieraziko direnak, arkupeak, sarrerak eta aintzinalderako alegiazko irudi gehiagorekin, bertzeak bertze.

Arkupeak-en omenaldia

“Euri aunitz egiten du Belatetik honat bainan Nafarroako Gobernua guti bustitzen da” erran zuen Arkupeako lehendakaria den Felipe Ganboak, elkarteak Bortzirriak, Mallerreka eta Baztango ordezkariari azaroaren 16an Beran eskeini zien besta-omenaldian.

540 bazkidek hartu zuten parte besta honetan, Iruñeko Gobernuo Ongizate Sozialeko Sailburua egon zelarik bertan. Herriko Etxean, alkate eta zinegotzien bilera egin ondoren, meza ospatu zen plakak eta lore sorta banaketak eginez bukaeran. Hiru jatetxetan egindako bazkariarekin eta dantzaldiekin amaitu zen eguna.

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAK errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzen laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguruua.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - **BERA**

ZALAIN JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - **BERA**

LESAKA

Izugarrizko jendetza eta 38azienda Bortzirietako ferian

Gillenbordako Gabriel Alzugaraik eraman zuen betaberetan lehen saria

AITOR AROZENA

Eguraldi ederra eta giro epela izan zen Lesakan Bortzirietako feria egunean, eta hau probetuz jende ugari bildu zen bertara, aziendak ikusi eta salmenta postuak bisitatzera.

Aintzineko egunean ere burutu ziren hitzaldia eta Ajoarriero txapelketa (honetan, Eguzki elkarte garaile), baita Lesakako trikitixaren emanaldia ere.

Ortzegunean, feriaz gain, Larretxea eta Mende-giaren arteko lehia eta Lizaso eta Euzkitze bertsolariak izan genituen.

Azienda sariak

Behi holandesik ez zen agertu eta suiza mailan eman ziren bakarrik sariak. Lehenbizikoa, Gillenbordako Gabriel Alzugarai izan zen, 2. Makukobordako Luis Olaetxea eta 3. Ierrenbordako Francisco Ubiria. Bi-



Feriak: jendea milaka, saltzaile aunitz eta aziendak 38

gaietan, holandesak bakarrik agertu ziren eta Angel M^a Alzugaraiak eraman zuen lehen saria. Zaltaberetan, lehen saria Urdinbaitako Jose M^a Anduezak eraman zuen eta 2. eta 3. Jose Antonio Anduezak. Aharien lehen saria ere Gillenbordara joan zen (2. Blas Goizueta) eta Ierrenbordako Francisco Ubiariak sari berezia eraman zuen zezen bat aurkezteagatik.



Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuko lehendakaria zonaldeko alkateekin eta Laminaciones-eko Enpresa Komitearekin bildu zen Azaroaren 27an, lantegiaren egoera eta irtenbideak aztertuz.


W ttipi-flash

□ Euskal prentsaren mahaia paratu zen Feria egunean.

□ Aranguren Aroztegiak burutuko du Alondigaren moldatzea, bertan Jubilatuen egoitza egiteko, 13.794.386 pezetan truk.

□ Elgorriagako bainuetxearen alde agertu zen udala ahobatez, zonaldeko turismoarentzat eta egoera sozio-ekonomikoarentzat mesedegarria izanen delakoan.

□ Katazpegiko zabor-tegian zein eremu itxi behar den jakinarazi beharko du Udalak, 4 milioietako subentzioa jasotzeko eta ardiak bertan ez ibiltzeko. Erabakia, azken plenoan hartu zen, EAren aldeko 2 botoekin, HBren 3 abstentzioekin eta PNVk "gaia tratatzeko momentua ez dela eta" ez zuen botatu.



**GOIZUETA
KIROLAK**

Kirolak
Mendirako artikulua

Behoko Plaza 10 LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarra - LESAKA

Ehiza denboraldia azaroaren 24ean bukatu aurtengoz

Sareetan 62 dozena uso hartu dituzte eta gastuak 700.000 pezetatan gainditu irabaziak

PELLO APEZETXEA

Izan ere, usoak joan egin dira. Inoiz baino gehiago etorri, baina altu eta gogor aintzinerara pasa. Sareetan geldiarazi dituztenak 62 dozena izan dira. Denboraldi berezia aurtengo hau ere: hego haizea bertze nonbait ibili zaigu, euria eta hotza lagun izan ditugu. Harritzekoa da usoak beren bizileku epeletara lehenbailehen joan nahi izatea?. Ehiza denboraldia azaroaren 20an bukatzen bada ere, aurten 24era arte luzatu dute, eta luzapenak usazaleei saria ekarri die; 23an 102 uso harrapatu bait dituzte, aurtengo denboraldiaren bigarren egunik onena suertatu delarik. Dena den, aurtengoan gastuak 600.000-700.000 pezetatan gaindituko omen ditu sare ehizaren irabaziak.



Landaburuko Bordako Gerardo, Idoiko trepan. Goiko argazkietan ageri denez, ehizturiak ez dira beti tiroka aritzen. Munduko zenbait gauza konpontzen ere bai. Bertzalde, horra usoak sareetan harrapatuak.

Larraburuan gero eta jende gehiago

Norbetori bizilaguna etorri zaio. Izan ere, zaharren bizilekua ireki zenez geroztik bigarrena sartu da, Exkutuko Roman.

Bertzalde, jubilatuaq barra-barra dabilta igandez, eguerdialdean batez ere.

Xabierreko San Franzisko egunean bazkaria egin dute, aurten etxe horretan antolatzen duten hirugarrena.

ttipi-flash


□ Haur ttikien eskolan kortxuz estali dute zola, beroxeagoa gerta dadin, 250.000 pta. kosta delarik.

□ Solfeo eta akordeoi klaseetarako laguntza, iaz bezala, hileko 15.000 pzta. onetsi du Udalak.

□ Herriko Etxeko enpleguatuak aurten ere, eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz, euskara ikastaroa burutzen ari dira Bortzirietako Udal enpleguatuak, Etxalarkoak barne.

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 **LESAKA**

KOXXKONTA



Sagardotegia
Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa:637264


IGANTZI

Bentako ATM fabrika haunditu egingen dute

Epe labur batean, 10 lanpostu berri sortuko ditu

OSKAR TXOPERENA

Obrak aspaldixko hasiak badira ere, egun haue-
tan ailegatu da Herriko
Etxera ATM fabrika haun-
ditzeko baimena. Jakina
zen hasieratik bi zatitan
eginen zutela fabrika eta
orain bigarren fasea egi-
nen dute. Zabaltze lanak
trenbide aldera egingen di-
tuzte eta fabrikak orain
3.000 m² inguru baldin ba-
ditu, 4.000 m²tan geldit-
tuko da azkenean. Santi
Olmos, bere gerenteak
erran digunez, tailer meka-
niko baten lanak egingen
dira gehien bat zati berrian,
torno, fresa eta horre-
lakoekin egindakoa. Ber-
tzalde, komentatu zigun



Haunditutakoan 4.000 m² izanen ditu lantegiak

KARMELE

baita 10 lanpostu berri sor-
tuko direla epe laburrean.

**Igantzi berriak
irratian**

Xorroxin irratia Igan-
tziko berri ere ematen du
bere programazioaren ba-

rruan. Itziar Iguzkiagirrek
ematen ditu berriak eta
1etik 1,30rako tartean iza-
ten dire ortzegunetan. Fre-
kuentzia berriz 107,5 FM.

Xerri puxkak

Albaiteroak astearte eta

ortzegunetan goizeko 12ak
laurden guttitan pasatuko
dira mataderitik etxeetan
hildako xerri-puxken eske,
analizatzen. Kanpainak
abenduaren 9tik otsailaren
27ra arte iraunen du.

LAINO
HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA


KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

BORTZIRI
Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

**MOBLEAK
METS**

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera
joanen gara.
Konpromisorik gabe!!

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Arantzako bi bikote Donostiako finalera

Bortzirietako Egin-Mus kanporaketan irabazle suertatu ziren

JON LARRETXEA

Lesakan jokaturako Egin-Mus txapelketaren kanporaketan, Arantzako bi bikotek lortu zuten finale txartela. Lehen bikotea Patxi Larrainkobordakoa eta Mikel Etxeurrikobordakoa, bigarren bikotea berriz, Larrainbordako bi ahizpak, Camino eta Mercedes. Finala Donostian jokatuko dute. Suerte on.

Soldaduzkarako sortea

Arantzatik soldaduzkarako sortean sartu diren seiak honako lekuotara tokatu zaie:

Juan Angel Lukanbio eta Oskar de Rueda Pirineo okzidentalera (Bur-



Donostiako Egin-Mus txapelketaren finalera joanen dira Larrainbordako bi ahizpak, Mikel eta Patxiarekin batera

KARMELE

gos); Mikel Bereau Canariasera; Jose Luis Burgete eta Jose M^a Errandonea

Cadizera eta Jose Mari Taberna zentrora (Madri- lera).

ttipi-flash

□ **Arantza eta Igan- tziko** Udalek telefono kabina bana jartzea eskatuko diote Telefonikari.

□ **Josetxo Arribillaga** irakasleak bere lanpostua utzi egin du eta bere ordez Imanol Txoperena "Mut- tiko" etorri da.

□ **Zerri puxkak ana- lizatzeko** astearte eta or- tziraletan goizeko 11,30- etan pasatuko da albaiterua.

□ **Ardiendako diru- laguntza** eskatzeko epea zabalik dago, datorren abenduaren 31ean itxiko delarik.

□ **Inauterietako or- tzilara** hautatu du Udalak besta lokal gisara.

ALICIA

JANARIDENDA

Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
BERA

Zure publizitatea 4.700
etxetara zabaldu nahi
baduzu, deitu 631188ra

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

FOTO GOIKO

Altzate karrika, 36 Tfnoa: 63 05 15

BERA

Fax: 63 05 15

- Ezkontzetako erreportaiak: Argazkia eta bideoa
- Karnet argazki berriak
- Argazki eta bideo materialaren salmenta

● **"Udazkeneko kanpaina" 2 x 1**

Abenduaren 31a arte.

135 -12 - 24 eta 36 roiloak errebelatzerakoan
2 eraman eta 1 ordaindu.

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, Agerra Industrialdean

SARA

«Telethon 1991» kanpaina burutuko da Abenduan

Abendoaren 7an iraganen da Larrunerako ibilaldia

OLHAIN ELKARTEA

Bortzgarren aldikotz ospatuko da heldu den Abendoaren 6 eta 7an «Telethon 1991» “miopatia” edo “giharren gaitzaren” aldeko sustengu ekintza. Bertan parte hartuko dute Azkaingo herriaren antolakuntzapean, Urruña, Senpere, Sara eta Donibane Lohitzuneko herriek.

Ekintza huni buruz, erran behar da, elkarretaraten direla herrietako elkarten arduradunak.

Herri bakoxtetarik Larrun gainerat iganen gira, Iturrederretan elgarretaratu gosauri batentzat. Larrungo train ttikiak bere



Giharren gaitzaren aldeko sustengu ekintza da Telethon

gain hartuko du ehun bat lagunuen garraioa.

Beraz, Abendoaren 7an iraganen da Larrunerako

ibilaldia. Hitz ordua goizeko 10etan, Saratar eta auzo herritarrentzat. Elgarretaratzea izanen da Iturrede-

rretan 11etan. Zatozte denak herien sustengatzerat eta egun goxo baten pasatzerat.

COMERLAV
S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almazen, etxebizitza, garaje etabarretan...
DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatu dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alojera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27
IRUÑEA

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

Beatriz
ILEAPAINDEGIA

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a aurpegirako tratamenduarekin
- ❖ Kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

Eskolako haurrak Xorroxin irratian aritu dira

Bertzalde, 21 bikotek eman dute izena pala txapelketan

PATXI PETRIRENA

Aurten bigarren urtez, eskolako haurrek Xorroxin irratian programak egin dituzte goizetan, aste guzian. Mailaka eta taldeka banaturik, batzutan zuzenean eta bertzetan grabatutako gauzak emanaz, atsegin izan zaie beren abotsak etxe guzietara ailegaraztea, kantak, elkarriketak, ipuiak eta bertzelakoak eskeini dituztelarik.

Argazkia: PATXI



Hona hemen Jexuxmarik atera duen kilo eta zortziehun gramotako zanahoria ttikia. Baratze emankorra!

Paleta txapelketa

Hasia da dagoeneko herritar eta ingurukoentzat antolatutako paleta txapelketa, gomazko pilotaz. Hogeitabat bikotek hartzen dute parte, lau herritarrek eta bertzeak Elizondo, Mugairi, Eratsun, Donamaria eta Igantzikoak. 22rako lehen fasea akituko da, dauden lau taldeetatik bina bikote aintzinerara pasatuz. Larunbatetan arra-

tsaldeko 4etan eta igande goizeko 10etan jokatzen dira partidua. Antolatzailerik diotenez maila bikaina dute partaideek, eta ikusle gehixeago hurbiltzeko deia egiten dute. Aski ezagunak izandako pilotariak ere ari dira, Elias Pirola errate baterako.

Kinto bazkaria

47, 48, 49 eta 50eko kintoek bazkaria ospatuko

dute abenduaren 8an Salaberrian. Meza ere egingen dute hildakoen alde. Berrogei inguru bilduko dira, zenbait kanpoan bizi direnak, Frantzian, Beran, Donezteben, Elgorriagan... Egun ederra pasa ezazue!

Zerri puskaren analisia

Doneztebeko osasun zentruan egiten dute astelehen, asteazken eta ortzi-

raletan, 8etatik 12etara. Puskarekin, paper batean izen-abizenak, helbidea eta telefonoa eta zerriaren adina jarri behar da.

Obrak

Ari dira Leku-Ederren, hasi dira eskolako paretan (kasualidadez hemen aipatzean), segitzen dute saihesbidean... Eta karrika nagusia nola dagoen denek dakizue ...

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hillarriak...)

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

Zure iragarkiak
inguru honetako
4.700 etxetara
zabaldu nahi
badituzu, deitu
631188 telefonora

DONEZTEBE

Arkupeak: Bortz urte Donezteben egoitza egin nahian

Dagoeneko, 6.500 m²tako lur-saila aukeratua dute Elizagibelan

TXEMA ALDABE

Bortz urte daramatza Arkupeak Donezteben egoitza edo erresidentzia egin nahian. Nafarroako Gobernuak du azken hitza eta honen aldaketa dela eta, afera geldirik dago orain, baita Lesaka eta Berako egoitzen moldatzea. Dagoeneko, 6.500m²tako lur-saila aukeratua dute Elizagibelan, Intzakardi parkearen parean, Uhaldea gurutzatzeko zubi bat egi-tea pentsatua dagoelarik.

Lau egoitza Elizondo, Bera eta Lesaka, martxan daudenak, eta laugarrena, Doneztebekoa. Hauxe da Arkupeak nahi duena eta ez Elizondokoan zentralizatu dena.

Zahar Etxeak Erresidentzia Donezteben egonen balitz ere, herri bakoitzen beha-



36 herrietako jubilatuak biltzen dira Arkupeak elkartearen

rreren arabera Zahar Etxeak egitea bultzatuko litzateke. Donezteben, Herriko Etxe zaharraren behean eta bertan, beren denbora librean pasatzeko lekua egokituz.

Guzi hau aintzineratuz ateratzeko Arkupeak Elkartearen laguntzaz gain, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izanen da. Gaur egun Etxalar eta Igantzin martxan daude eta

Sunbillan moldatzen ari dira.

Hogeitamasei herritan Leitza da Elkartearen sartu den azkenekoa. Bertzalde, urte honetarako ekintzen artean burutu gabe gelditzen direnak, Urte Zaharreko besta, abenduaren 27an eta eri daudenei urtatxa eramatea liratekeen.

ttipi-flash

□ **Lapurretak** Botika eta Euskaltegian. Botikatik 200.000 baino gehiago eta musika-aparailua ebatsi zuten, Euskaltegitik 25.000 pzta inguru eta kaseta bat.

□ **Haurdunen ikastaroak** astelehenero. Hamar bat dira Kultur Etxean biltzen direnak erlajazioa eta gimnasia ariketak egitera.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91



*Udazkeneko moda
Estilo propioz
egindako arropak*

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - **DONEZTEBE**



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - **DONEZTEBE**

Kloroa dela eta ez dela, arazo ugari herriko urarekin

Miloi erdiko multa jaso du Udalak ura sanitarioki ez egokia banatzeagatik

JUAINAS

Zenbateko bueltak dituzten gauzak! Urte batzuk dira ura konpondu zelarik dena akitua zela zirudien, Iturria ireki ura erabili eta listo! Ez ba! Hor ez da bukatzen. Urak kloroa behar omen du, eduki bazuen holako kloradora txapuz bat depositoan, kada dos por tres botzen ez zuena. Uda partean azterketa egin zuten eta ez omen zegoen ur-tantarik edatea Zubietan. Harez geroztik aiuntamentua mugitu egin da, kloradora berria erosi du, iturriak moldatu ditu eta bat-batean... zas! goitik heldu zaigun papera.

500.001 pztatoko multa ura sanitarioki ez egokia banatzeagatik. Uuiui! Mogitzen hasi, egin den guzia aurkeztu eta oraindik zalantzan dago eroriko den ala ez. Lehen gutti edaten bazen hemendik aurrera, auskalo!

Bada ez bada ere, aspaldiko partez bi zubietar elkarrekin ezkondu behar eta uraren problema dela eta Gipuzkoara doazte bizitzera. Ura bai, kloro pilarekin edanen dutena!


Eta aferak bukatzeko orain zalantzan omen da aiuntamentua iturrietan jarri behar den kartela dela eta. Sanitarioei galdetu eta "agua sanitariamente no



"Kloro gabeko ura" dioten kartelak jarriko dira seguraski herriko iturrietan
ARTXIBOA

potable" jarri behar dela esaten duten. Seguraski ja-

rriko dena zera izanen da: "kloro gabeko ura".



KAMAMILA DENDA NATURISTA

- ❖ Mediku kontsulta naturista
- ❖ Sauna (ordua eskatuz) eta masajista

Merkado Errepidea, 2. Tfnoa:451 528 - DONEZTEBE

- ❖ Kosmetika naturala
- ❖ Lurrinak, kolonia naturalak, xaboiak, lore idorrak...
- ❖ Gabonetarako opariak hemen aurkituko dituzu

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

ASKIN OSTATUA

BOKADILLOAK eta
PLATER KONBINATUAK

Elizagibela, Tfnoa: 450052
DONEZTEBE

Zine emanaldiek, hasiera oso ona izan dute

880 sarrera saldu ziren, lehenengo asteburuan



ANTTON ERKIZIA

Dagoeneko jakina da, baina berriz ere esateak merezi du: zinea ematen hasi direla, ostirala gauero, eta igande atsalde eta ilunabarrez. Eta erantzuna ezin hobea eduki du iniziatiba honek, ustekabean harrapatuz antolatzaileak berak: 880 sarrera saldu ziren lehenengo asteburuan, bi pelikulekin.

Kultura eta denborapasa asmotan bideratu diren emanaldi hauek, atseginak

eta erakargarriak izaten ari dira.

Programa eta lanak ere oso serio hartu ditu jendeak. Punta puntako pelikulak ematen ari dire, eta hamasei edo hogeitaz gaztek hitza eman dute lanerako, txandaka, pelikulak botatzen edo sarreran eta aretoan ordenaz arduratzen. Hauen izenak azaltzea ez zaigu gehiegizkoa iduritzen, muxu truk lanerako prestatu direnez, guk patxadan pelikulak ikus ahal izateko:

1. taldean: Etxebe pelukeroa, Kepa de Mateo, Katti Larras eta Manu Arangoa.

2. taldean: Pablo Arozena, Itziar Fagoaga, Jeus Mari Ariztimuño eta J.L.A.

3. taldean: Rosa Zozaia, Ion Barriola, Zizi eta Felix Fernandez.

4. taldean: Mallo Agi-

rre, Maria Arretxe, Jose Antonio Peru eta Maialen Lazkano.

Udaletxearen izenean: Luxiano eta Pitulari.

Kotxeak traban nunnahi

Kotxeekin herri erdian maiz gertatzen den nahasketaz, protesta azaltzeko TTIPI-TTAPAN eskatu digute. Eta arrazoi osoa, gainera. Kotxeak ongi aparkatu beharrean, joan eta bertan utzi egiten bait dugu, askotan traban eta horrek korapilo franko sortarazten du. Batez ere, herri erdikaldean.

Ezaguna da ere, gasolinerako bidegurutze hortan gertatzen diren "eskapadak", bidea behar den bezala seinalizatu gabe dagoelako. Esana dago, erabakia hartua ere, baina ez gara eskarmentatzen, zerbait gertatu arte.

Jubilatuaren pesta

Orain berriki, Leitza eta Aresoko jubilatuek lagunarteko bazkaria egin izan dute, Oialden.

Carmen Lasarte eta Jeronima Arraras aritu ziren hori antolatzen, gehienbat, eta biek ere pozik zeuden 87 jubilatuta elkartu eta giro ederrean joan zelako zesta.

Askoz ere jubilatuta gehio badago Leitza eta Areson, baina ezaguna da bananduak dabilzala, bi edo hiru taldetan.

"Asketa" koralaren emanaldia

"ASKETA" Koralak, San Francisco Javier egunean eskeini ohi duen saioa, aurten ere eman zuen, zinean.

Bi koralak ziren aritze-koak, dozena bat euskal kanta eder kantatuz.



Irria eta lagunartea beti da osasungarri

M.J. LASARTE



Asketa: neska-mutikoak / 90

ANTTON

Laister hasiko dira eskoletako frontoiaren obrak

Oso osorik ordainduko ditu Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren 15.200.000 pezetak

ESTEBAN AROZENA

Sekulan bukatuko ez zen gaia bazidurien ere, urteak igaro ondoren irtenbide bat eman zaio eskoletako frontoiaren arazoari, 15 milioitik gora kostako diren berrikuntza lanak laister hasiko baitira bertan, Nafarroako Gobernuak ordainduko duelarik dirutza hori oso osorik. Gogorazi dezagun, aipaturiko pilota plazak akats ikaragarriak izan dituela «Dragados y Construcciones» enpresak egin zuenetik. Hori dela eta, hainbat urte igaro ditu Udalak Hezkuntza ministeritzari hobekuntza hauen kargu egiteko eskatuz. Arlo horretako kompetentziak Di-



Eskolako pilota plazak akats ikaragarriak izan ditu eraiki zenetik

ARTXIBOA

putazioak hartu zituenean, 12 miloiko proiektu bat burutu zen, %80 ingurua berak ordaintzen zuelarik eta gainerakoa Udalak. Orduan ez zuen Goizuetak onartu proposamen hori, baina azken hilabeteotan

egindako gestioei esker lortu da Udalak betidanik izan duen helburua, hau da, xoxik bota gabe frontoia konpontzea. Gainera, proiektua aktualizatu da eta hasieran esan dugun bezela, Joxe Zerainek burutuko

duen obra honen truke 15.200.000 pzta emango ditu Nafar Gobernuak.

□ **Umore Ona** elkar- tearen inizatibari erantzunez, bi komisio berri osatu dira egunotan. Bat pilotaren funtzionamenduz arduratuko da, eta bestea dantza taldeaz. Umore Onako bazkideak, pilotariak, gurasoak, dantzariak etabar daude taldeetan.

□ **«Senideak»** euskal preso politikoaren familiar- tekoen elkarteak aurkeztu- tako mozio bat onartu berria du Udalak, “herri honetako preso politikoak beren probintzietan dauden presondegietara ekartzea Justizi Ministeritzari” eskatuz.

ARESO

Junta Parrokiala berritzear

Aurrerantzean beste modu batetara antolatuko da

JUANA MARI

Aresoko Elizak komi- sio bat du bere arazoak eta gora beherak moldatzen saiatzeko. Bere izena Junta Parrokiala da. Orain dela urte asko sortu zen eta 8 lagunez osatua dago, apai- za zuzendari delarik. Bai- na batzuk utzi egin dute kargua eta besteak aspertu egin dira. Beraz, bi edo hiru pertsona bakarrik gelditzen

dira. Bilera asko egin on- doren, Juntari beste forma bat ematea pentsatu da, elizaz arduratzen diren komi- sio txikietan pentsatuz; bakoitzetatik ordezkari bat hartuko da eta horrela osa- tuko baita.

Aresoko elizak orain- dik komisio gutxi ditu; ka- tekistak, obra komisioa eta liturgia. Nolanahi, denbo- rarekin komisio gehiago egitea pentsatzen dute.



Aresoko elizaren Junta Parrokiala berritu egingen da

JUANA MARI

BAZTAN


Bizitetxe sozialendako eskakizun haundia

Plazoaren barne 228 inkesta-orri bete ziren eta ondotik hainbat gehiago

JOSEBA I.

Luis Arregik, Baztango Udaleko Hirigintzarako kontzejalak gaztigatu zigunez, 228 izan ziren plazoaren barnean, urriaren 31a baino lehen, Balleko Etxeko ofizinetan bete ziren inkesta-orriak. Halere, geroztik hainbat jende hurbildu omen da Balleko Etxerat gaiarekin interesatuak. Eskari guzi hauek, Nafarroako Gobernuaren menpekoa den VINSA enpresari zuzenduko zaizkio eta baliteke, behintzat horrela erran zigun Luis Arregik, datorren urtean aintzina pauso konkreturen bat ematea afera honetan. Dena den, halabeharrak hala eskatuko balu, VINSA ez den bertze bideren batetik ere gauza bera egiteko asmoa du Udalak.

Nolanahi ere, urte bat baino gehiagotan gauzatu beharrekoa izanen omen da eta Luisek erran zigunez, 80m²koak izanen dira erai-kiko dituzten bizitxeak. Etxe hauek non eginen dituzten eta zenbat balioko duten zehazki jakiterik ez da izan.



Juan Martin Aleman: «Merkatuko prezioa, pisua eta haragiaren kalitatearen arabera finkatzen da. Iaz, Baztan-Malerrekan 1.500 bildots komertzializatu genituen»

Artzaiek bildotsaren komertzializazioa kontrolatu nahi

Berriki, Mugaireko Nekazari Eskolan bilera izan zen. Xehetasun gehiagoko izateko, Juan Martin Alemanengana jo dugu:

Nork antolatua eta zergatik? EHNEk antolatu zuen sektorearen intsegritateagatik eta bertzeen eskutik ibili beharragatik. Kezka honengatik, prezioa mantentzeko eta sektoreari segurtasuna emateko, saltzeko sarea sortu da.

Zenbat bildu zineten? 50 bat artzain. Dena den, sarean 25 edo sartuko direlakoan gaude; Bortzirriak eta Malerrekakoak aparte.

Zer erabaki zenuten?

Gauza haundirik ez, baldintza batzu bete behar direla: kooperatibaren bitartez saldu bildots guziak, kapital sozialerako, 12.000 pztza eta bildots-larruak.

Nola saldu eta zein prezioetan? Saldu Behiki Kooperatibaren bitartez eginen da eta seguraski Euskal Herriko bildotsa izeneko "Denominacion de origen"-ekin. Hilabeteko bildotsa, amaren esnea edandakoa eta 10-12 kiloak. Prezioa merkatuak finkatuko du eta dirua zuzenean artzaiari emanen zaio saltzeko %2-2,5eko gastua kenduta.

ttipi-flash

□ **Zigako Ostaturra** etxean, hizkuntzak ikasteko akademia bat zabaltzeko baimena eman zaio Philip Eddison jaunari.

□ **Berroetako Elisabet** Santesteban izendatu dute Baztan-Bidasoa-Leitzaran eskualderako Kirol Koordinatzaile. Baztango Balleko Etxean eginen du lana eta momentuz, hiruhilabeterako kontratua egin diote.

□ **Baztango Udaltzaingoa** edo "Policia Municipal"-entzat 2 moto erosteko, milioi bateko laguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

□ **Nafarroa Oinezi** 25.000 pztatako laguntza ematea onartu zuen Udalak.

□ **Arizkungo eskolaren** egoera txarra dela eta, bertako irakasleak kexu agertu dira arazo honen aintzinean konponbiderik ematen ez delako. Balleko Etxekoak beren aldetik, Nafarroako Gobernuari konponbiderik lehenbailehen ematea eskatuko diotela agindu dute.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Neguko moda, opariak, telak

Euskal Kantu Txapelketa

Elizondoko kanporaketa, Erlategin abenduaren 14ean. Parte hartzeakoak dira bertzeak bertze, 14-15 bakarlari, talde edo bikote. Hauetarik zenbait Bantandarrak eta Zugarramurdia-rrak dira. Doneztebeko Kurkusa Taldea, Lesaka eta Berakoak diren Ana Etxepare eta Edurne Mitxelena eta baita Igantziko Unanue Taldea ere egonen dira. Saioan, 4 minututako abesti bat edo bi kantatuko dituzte.

Epaimahaiak, abenduaren 21ean Bordatxon egi-



14-15 bakarlari, bikote edo taldek parte hartu dute.

ARTXIBOA

nen den finalera pasatuko direnak berexiko ditu. Bordatxotik, Euskalerriko Finalera pasatuko direnak aukeratuko dira.

Kontutan hartu, Xorroxin irratiak zuzenean emanen duela saioa Baztan, Malerreka eta Bortzietarako.

W ttipi-flash

□ Antena 3, Telecinco eta Canal Plus Baztanen ikusi ahal izateko, Udalak, beharrezko azpiegitura lanak burutzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

□ Mugaireko kanposantuaren haunditzea dela eta, Blanca iturriari eskatu dio Udalak proiektua eta aurrekontua egitea.

□ Irurritako Guraso Elkarteari, urte osoan barrera egin dituzten aktibitateei laguntza moduan, Baztango Udalak 50.000 pztatako diru-laguntza eman dio.

ZUNZARREN Gestoria

◆ Allianz Ras Aseguruak

◆ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

• Instalakuntza berriekin,
• roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
• Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

ZUGARRAMURDI

Jose Mari Sansinek irabazi zuen apostua

17 arroltze jan zituen 20 minutotan

KORO ETA MARGARI

Gan den astelehenean "Altzatenea" jatetxean ikaragarritzko apostu bat izan genuen Ohieriko-bordako Patziku eta Jose Mari Sansinen artean:

Patzikuk zion Jose Marik ez zituela afaltzeko 17 arroltze frejitu janen, Jose Marik berriz baietz. Baietz eta ezetz... azkenean gu testigu izan ginen eta erraiten ahal dugu Jose Marik 20 minutuz jan zituela: 17 arroltze frejitu,



Afare ederra bota zuen Jose Marik "Altzatenea" n

hiru laurdeneko ogi bat, gaztanbera ontzi bat eta

ongi akitzeko afarea, kafea, kopa eta puroa.

Horrela ba Jose Mari irabazle gelditu zen eta Patzikuk ordaindu zituen gastu guziak.

Familia Zerbitzurako emakumea behar da

Zugarramurdiko Alkate Jaunak jakinarazten du behar dela emakume bat etxeetako zerbitzu familiarra egiteko.

Informazio gehiago jakiteko deitu Urdazubi eta Zugarramurdiko Asistente Sozialari: 58 00 06 telefonora eta mintzatu Ines Orbegozorekin.

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikuluak

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



ESTETIKA * SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUNA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

EZKONTZAK

Juan Zubiri Jaurena eta **Ascension Azanza Elizalde**, Zugarramurdi eta Iruñekoa, Urriaren 26an.

Migel Serrano Telletxea eta **Manuela Arana Valenzuela**, Iruñea eta Badajozkoa, Urriaren 31an.

Domingo Garmendia Urtizbe-rea eta **Ana Zubikoa Biela**, Donostia eta Iruñekoa, Azaroaren 9an.

Pedro Iantzi Irigoien eta **Elena Danboriena Alzuarde**, Anitz eta Iruñekoa, Azaroaren 2an.

JAIOTZAK

Arantxa Oronoz, Saran, Azaroaren 19an.

Unai Madariaga Iribarren, Urrotzen, azaroaren 20an.

HERIOTZAK

Natividad Igoa Iriarte, Beran, Azaroaren 8an, 77 urte.

Maria Zelaieta Lazkano, Beran, Azaroaren 17an, 61 urte.

Cecilia Etxebeste Mitxelena, Beran, azaroaren 23an, 69 urte.


Severina Iribarren Salaburu, Oronotzen, Azaroaren 4ean.

Juana Opoka Lizaso, Oronotz - Mugairin, Azaroaren 6an.

Eusebio Iturregi Irigoien, Elizondon, Azaroaren 7an.

Gregoria Salas Galarza, Elizondon, Azaroaren 7an.

Josefa Goikoetxea Goikoetxea, Elizondon, Azaroaren 11an.



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESACA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO HALTZARIAK



UNION CONTACTS LOISIRS

ZURE GIZA HARREMANETARAKO AGENTZIA

TFNOA: (943) 42 64 11

Okendo 2, 20004 - DONOSTIA


- ♥ **Bakarrik zaude?**
- ♥ **Zergatik?**
- ♥ **Ez duzu inor ezagutzen zurekin ezkontzeko?**
- ♥ **Familia bat egin nahi baduzu...**
- ♦ **Gure laguntzarekin nahi duzuna lortuko duzu.**
- ♦ **Kezkarik gabe etorri guregana edo deitu.**
- ♦ **UCLrekin zoriontasuna lortuko duzu! Animatu!**

Matxinbeltzenea Euskal Etxea inauguratu zuen Bortzirietako Euskaltegiak (IKAk) Lesakan

Azaroaren 24ean egindako ekintzara jende eta pertsonalitate ugari bildu zen

Joan den azaroaren 24ean, eguraldi eguzkitsu baina hotz batekin inauguratu zen Lesakako Matxinbeltzenea etxean Bortzirietako Euskaltegiaren (IKA) egoitza berria izanen dena, jatetxea, ostalua, albergea eta barnetegia ere bertan kokatuko direlarik. Urte bete lanean eman ondoren emaitza ezin hobea izan dela bistan gelditu zen, eta kanpotik itxura polita agertzen bazuen, barnetik ere arrunt txukun eta ederra gelditu baita Matxinbeltzenea.

Inaugurazio ekintzan, politika eta kultur erakundeetako hainbat jendez gain, herriko jende ugari bildu zen Euskal Etxera. Bortzirietako zinegotzi gehienekin batera, han zeuden Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia den Jose M^a Rodriguez Otxoa, Estebe Petrizar zuzendari ohia, J. Jose Ekain Hezkuntza saileko Euskara Departamentuko zuzendaria, Petrirena EHNE Nafarroako lehendakaria eta kultura munduko hainbat ordezkari.



IKAk hizkuntza eta kultura sendotu eta zabaltzeko egokitu du Matxinbeltzenea

e

kintza ofizialari dagokionez, Bortzirietako Euskaltegiko irakaslea den Patxi Petrirenak aurkeztu zuen. Lehenik Manolo Arozena bertsolariak 3 bertsotan “urte osoan lanean ibili direnei txaloak” eta

“erakundeetako buruei dirulaguntzak” eskatu zituen.

Ondoren, Bortzirietako Euskaltegiko arduraduna den Mikel Legarrak “urte osoko lan nekagarriak fruituak eman dituela eta

honek ilusio eta indar berri zintzen aintzineraz begiratzeko ematen duen indarra” azpimarratu zuen.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehen-dakariak, hau da, Juan Miguel Almandoz Arantzako alkateak, dirulaguntzen beharra aipatu zuen berriaz, “*Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ezin baitu berak nahi hainako laguntzarik eman*”.

Azkenik, Lesakako Abesbatzak “Festara”, “Dinbili-danbala” eta “Basaoilarra” kantuak eskaini zituen, Matxinbeltzenea etxearen inguruan bildutako pertsoneri.

Etxearen distribuzioa

Matxinbeltzenea 4 solairutan banatua dago; behe eta lehen solairuk 350 m² dituzte eta bigarren eta hirugarren solairuek berriaz,



Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaria Nagusia Matxinbeltzenean izan zen

200 m².

Behe solairuan, Kattu ostatua eta jatetxea (eguneroko menuekin) kokatuko dira, sukaldearekin batera, “*jadanik ongi funtzionatzen ari direnak*”.

Lehen solairuan eraketa eta didaktika bulegoak, euskaltegi eta barnetegiko gelak paratu dira; “*lehen barnetegia otsailan hasiko da*” adierazi digute Matxinbeltzeneako arduradunek.

Bigarren solairuan, barnetegiko logelak (4 lagun gela bakoitzeko) izanen dira, baita liburategia eta egongela eta hirugarrenean albergea, “*jadanik inaugurazioaren hurrengo asteburuan jende frango bildu zuena*”.

Horretaz gain, Lesakako euskaltegiaren klaseak bertan emanen dira eta itzulpen zerbitzua ere martxan paratu da. Datoren urterako, “*euskaltxoko bezala funtzionatzeko programa bat egin nahi dugu, astero ez baldin bada, maiz ekinza kulturalak egiteko*”.

Beraz, Bortzirietako




Lesakako Abesbatzak 3 kantu eskaini zituen

Euskaltegiak badu dagoneko toki txukun eta eder bat. Gustora gelditu dira emaitzarekin, izan ere “*komentarioen arabera jenera oso konforme gelditu da*”.

Proiektua aintzineratu da; orain eguneroko lanean jarraitu beharko dute Bortzirietako Euskaltegioko langileak.

Festua: Aitor AROZENA
Arg.: Karmele TOLOSA

«Zona mailan euskaltegia indartzeko proiektua da Matxinbeltzenea»



Mikel Legarra, Bortzirietako Euskaltegiako (IKA) arduraduna

«Nafarroan arazo latzak ditugu euskaltegiak finantzatzeko: Herri txikiak oso

tuta dauden eskualdetan arazo handiak sortzen dira. Hauek euskalduntze-alfabetatze lanean ahaleztuz eta finkotasun ezean aritzera behartzen gaituzte. Matxinbeltzenea proiektu honekin guzti horri erantzun bide bat eman nahi diogu.

Bertzalde, eskergarria da Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehen-dakariak proiektorekiko azaldu duen jarrera, “*gurea*” bezala kontsideratu baitu»

Juan Cruz Alli: «Bera eta Lesakan industrialdeak antolatzeak lehentasuna du guretzat»

Lesakako Alkaiagan 80.000m² eta Berako Zalainen 40.000 horretarako

Horrelako adierazpenak egin zituen joan den asteazkenean Juan Cruz Alli, Nafarroako Gobernua-ren lehendakariak, Lesakako Herriko Etxean eskualdeko alkate eta Lesakako Laminazioetako enpresa komiteko ordezkariekin, bakoitzekin bere aldetik bildu eta gero.

Juan Cruz Allik, alkateen eskariz egin zuen bisitaldi hau Lesakara eta berekin batera, Angel Luis Rodriguez, Industria kontselaria etorri zen.

Bai alkateek eta baita enpresa komitekoek positibotzat jo zuten lehendakariarekin hitzegindakoa bainan halere, oraindik ez dira ezagutzera eman, siderurgiaren errekonbertsio prozesuak eskualdean izan dezakeen eragina bai ekonomia mailan eta baita lanpostuei dagokionez. Bide honetan, hemendik sei hilabetetara ezagutuko omen da definitiboki INIren errekonbertsio plana zehaztasun guzietan Juan Cruz Alliren erranetan.



«Gobernuarentzat, Bortzirietako berrindustrializazioak lehentasun osoa dauka»

e

errekonbertsioa eginen den arako, industriarako lur-
rrak nahi ditugu Bera eta
Lesakan". Hauxe izan zen
egindako bileren ondotik
Juan Cruz Allik lehenik
adierazitakoa. "Jakina da,
errekonbertsio prozesu hau

eskualdeko ekonomian eta
lanpostuetan nabaritu egi-
nen dela, -erran zuen
Allik- eta horregatik, ber-
tako alkateekin egin dugun
bileran, sobran geldituko
diren lanpostuak eta lan-
postu berriak ere enplea-

tuko dituen lantegiak egi-
teko beharrezkoak diren
lur-eremuak prest jarri
behar dira". Bide horretan
eta Lesakako Alkatea den
Jose Luis Etxegaraik adie-
razi zuenez, Lesakako
Udalak 181.000m²ko lur



700 milioi inbertitzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak, industrialderako lurak erosi eta urbanizatzen

saila prestatua omen du gero 80.000m² eraikitzeko modua emanen dutenak denbora laburrean Alkaia-ga aldean. Berako Alkatea den Manuel Iriartek bere aldetik, Zalaingo industrialdean bertze 60.000m² ko lur-eremua, hauetarik 40.000 eraikitzeko, martxan jarriko duela baita adierazi zuen. Izan ere, bi industrialde hauek elkarlotuak egoteak "arras interesgarritzat" jo zuen Nafarroako lehendakariak. "Gipuzkoa aldeko zona hauxe dugu eskualde osoan industriadako presta daitkeen zonarik hobereena; Gipuzkoaldetik etorriko baita, etortzekotan, eskaririk interesgarriena".

Karreterak hobetuko

Belateko tunela, Nar-

barte eta Sunbillako saihesbideak eta Irun bitartean karretera moldatzea, "Nafarroako Gobernuaren konpromisoetan sartua" dagoela azpimarratu zuen Allik.

Bertzalde, Irundik industrialde hauetara gasbidea luzatzeko hitzarmena ere, arras aitzindua dagoela zehaztu zuen Angel Luis Rodriguez Industria kontseilariak.

700 milioi

Nafarroako Gobernuak, 700 milioi inguru industrialde hauetan inbertitzeko prest dagoela ere agindu zuen Juan Cruz Allik. Dirutza hori, Lesaka eta Berakoaren artean izanen diren 241.000 m²ak erosi eta gero urbanizatze bideratuko da. "Ideia -Allik adierazi zuenez- datorren

urtean hasi eta 1993rako obrak eginak edukitzea litzateke" Nolanahi ere, Bera eta Lesakako industrialde hauek lehentasuna izanen dute Doneztebe eta Baztan aldera lur bila jo aurretik.

Enpresa Komiteko Enrique Lopez-ek bere aldetik, "Lesakako Laminazioak AHVren parte direla - adierazi zuen- eta beraz, kabezerari eraginen dioen zernahik, Laminaciones-i ere eraginen dioela" azpimarratu zuen bilera ondotik. Horregatik, "AHVren kapazitatea ez jeisteko ahalegina egin beharra dago, baina hori ez dago gure eskutan, ezta Nafarroako Gobernuarenetan ere" azpimarratu zuen Enrique Lopez-ek azkenik.

Testua: JM. IRIGOIEN
Argazkiak: Karmele TOLOSA

Balorazioa



Manuel Iriarte
Berako Alkatea

Erraztasun fiskalak eta lur egokiak eskeini behar dira

Juan Cruz Allik, bere ikuspegitik, dakien guziaz jarri du mahai gainean, eta dirudienez, dakiena ez da gehiegi. Erran digunez, INI eta AHVko arduradunekin bildu da berriki eta hemendik sei hilabetetara emanen omen da ezagutzera errekonbertsioaren dimentsioa eskualdean. Egoeraren alternatiba moduan, konforme gaude Allik egin digun proposamenarekin, hau da; Zalain eta Alkaia-gako industrialdeak behar baita martxan jarri eta aldiberean, Belatetik Irun bitarteko karreterak moldatzearekin. Dena dela, erabili beharreko lurraren metro karratua behar bezala baloratu eta ordaintzeak bidea erraztu egingen duela azpimarratu nahi nuke. Gainera, enpresa berriei errextasun fiskalak ere eskeini beharko genizkieke.

Emakumezkoen I. Nafarroako Herri Kirol txapelketa burutu zen Elizondon

21 urtetik behitiko mutilak ere bertan lehiatu ziren

Emakumezkoen arteko lehen Herri Kirol txapelketa burutu zen iragan Azaroaren 24ean, Baztango Udal pilotalekuan, bertara jende ugari bildu zelarik.

Froga konbinatuan, Sunbillako neskak suertatu ziren garaile, Bortziriak, Basaburua - Baztan eta Berriozarko taldeen aintzinetik.

500 kilo arteko sokatira txapelketan berriz, Berako neskak izan ziren indartsuenak, Bortziriak, Sunbilla eta Berriozaren gaitzinetik.



Berako neskak izan ziren indartsuenak 500 kilo arteko sokatira txapelketan

Mutlen Sub-21 txapelketa

21 urtetik behitiko mutilak ere, Elizondon jokatu zuten Nafarroako Herri Kirol txapelketa.

Froga konbinatuan, Sunbillako mutilak gailendu ziren, sari berri bat herrira eramanez (honez gero kontua galdua izanen dute); beraien gibeletik NARBARTe, Bera, Lesaka eta Berriozar utzi zuten.

Azkenik, 580 kilo azpiko mutlen sokatira txapelketan, Baztango Basaburuakoak lortu zuten garaipena, Bera, Arizkun eta Berriozarko taldeen aurretik.

Kultur eta Kirol Astea ospatu zuten Lesakan Azaroaren bukaeran

Beti Gazte elkartearen 50. urteurrenaren egitarauaren barnean

Beti Gazte elkartearen 50. urteurrena dela eta Kultur eta Kirol Astea antolatu zen Lesakan Azaroaren azken astean.

Bertan, "Beti Gazteren historia" argazki erakusketa egin zen, 50 urteotako ehundaka argazkiak ikusteko aukera izan zelarik. I. Argazki Lehiaketaren sariak ere banatu ziren, lehen saria Jose Emilio del Riok eramanez.

Bertze ekitaldien ar-



tean, Gure Txokoa eta Beti Gazteren arteko tenis partidoak, Bortziriak eta

Beti Gazteren arteko futbol-sala partidoa eta xake simultaneak izan ziren.

Herri kirolak



ARTXIBOA

Herri Kirol Eskolak sortu nahi dira

12 eta 18 urte bitarteko neska-mutikoak bilduko lituzketen Herri kirol eskolak sortu nahi dira Baztan-Bidasoa inguruan. Hauek erakutsiko diren modalitateak, aizkora, arpana eta harri jasotzea izanen dira eta izena urte bukaera arte eman daiteke. Horretarako, Nafarroako Herri Kirol Federazioak Donezteben duen bulegora zuzendu daiteke (450900 tfnoa). Eskola hauen helburua, txikitatik modalitate hauek erakustea da. Bertan parte

hartuko dutenak ez dute inolako diruzarik ordaindu behar eta monitoreak titulatuak dira.

□ **Nafarroako** Ingude, Gurdia eta 100 kiloko harriaren txapelketa burutuko da Abenduaren 22an. Apuntatzeko epea hilaren 12an bukatzen da.

□ **Nafarroako** Herri Kirol Federazioak Asanblada Orokorra burutuko du Donezteben, Abenduaren 15ean. Goizeko 11etan izanen da Asanblada, Leku-eder zineman.



Sarako Christoph Mariluz eta Senpereko Albert Etcheverry dira aurtengo Frantziako txapelduna kadete

Sarako Izarra pilota eskolan lan haundia egiten ari da *Frantziako txapelduna ere badute aurten*

Sarako Izarrak duela 30 urte inguru hasi zuen pilota eskolan lan egiten eta geroztik emaitza bikainak izan dituzte. Gaur egun, trinketean, 6

urtetatik 15-16 urte arteko 30 gazte inguru dituzte pilotan ikasten. Frontonean berriz, iaz eta aurten Frantziako txapelduna dute kadete mailan.

Hamabostaldiko jokaldiak



Herri Kirol eskolak sortzeko inizatiba.

Herri kirolak tiki txikitik ikastea ez dago batera gaizki. Eta gainera, irakasle titulatuekin eta neska-mutilak xoxik ordaindu gabe bada, orduan fenomeno!



Agerrako futbol zelaia.

Berako futbol zelaia es-trenatzen den bitartean, Agerrako futbol zelaian ari dira Gure Txokoakoak. Behin behineko irtenbide txarra ez bada ere, hagitx egoera kaxkarrean gelditzen da euria eginez gero.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** etxebizitza salgai, 100m² gehi 22m² balkoi, 9 milioitan. 630522

Lana

• **Andre** bat behar da, Amaiurren bizitzeko, adineko andre bat zaintzeko. Informazio gehiago lortzeko, deitu telefono hon-tara: 58 10 21.

• **Urdazubiko** Koxka jatetxean neska bat behar da. Interesatuak deitu 599042 tfnora.

• **Haurrak** zaintzen edota etxeko lanetan eginen nuke lan goizez, ahal bada, Beran edo Lesakan. Hurrekin esperientzia badut. Deitu 637911 tfnora eguerditan (Eburne).

• **Neska** gazte baten beharra dago, Donostiako jatetxe batetan lan egin dezan. Interesatuak deitu 631106 tfnora.

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan**, lokal polita, berria, alaia eta herriaren erdian traspasatzen da. 35 m² ditu, bi partetan, prezio interesgarrian. Zure ilusio polit hori errealitate bihurtu ezazu, etorkizunari begira. Deitu 637410ra.

• **Betaurreko** batzu agertu dira kotxe batean. Deitu 637879 tfnora.

Salerosketak

• **Mando** merkea, lane-rako balio duena, salgai Saldiasen. Tfnoa: 615016.

• **Kitarra** bat etxeko zokoren batetan ahaztuta baldin baduzu eta ez baduzu behar dei iezadazu eta egonen gara. Tfnoa: 450580 (Joxemari).

• **Kitarra Anpli** bat salgai. Peavy Programax 10 Digital markakoa (150 W). Tfnoa: 637794 (Mazi).

• **Mendiko bizikleta** salgai. Prezio onean eta berria. Tfnoa: 514217.

• **2 urteko ahari** adaskiri horia eta itxura ederrekoa salduko nuke. Deitu 514229 tfnora.

• **Enzeragailu - dizdiragailua** salgai, "Torna-

do" marka, ia erabili gabea prezio onean. Tf: 637879.

• **Bi urteko** traktorea, hagitz egoera onean salgai. Tfnoa: 451518.

• **Kitarra** klasiko merke bat baldin baduzue saltzeko asmotan deitu 580323 tfnora (Jaione).

• **Pertsu** katu arra salgai (25.000). Tfa: 451518.

• **4 hilabetetako** artzai zakurra ile askorekin salgai (10.000). Tfa: 451518.

• **Labadora**, frigorifikoa, sukaldeak... erosiko nituzke. Tfa: 451518.

• **Soto eta ganbaretako** traste zaharrak erosten ditugu, eta bidebatez, dohain garbitzen dizkizugu ganbarak. Tfnoa: 451518.

• **Berako** Musika eskolak bigarren eskuko piano bat erosiko luke. Tfnoa: 631205 (4etatik 9etara)

Harremanak

• **Puerton** dagoen osaba Fernandori: Mila muxu frexko frexkoak gure xoko hotz huntatik. Segi aintzinat, naite zaitugu. Zure ilobak. Zugarramurdi.

• **Elizondoko** Rakel Etxebarrientzat. Maite

zaitut. (Amaiurko Tobias).

• **Narbarteko** Mikel: Zu zara mundua eta izarrak. Nik maite zaitut. Muxu bat. Gren partez.

• **Javier Migeltorena-arentzat**: Abenduaren 3an duela urte eta eguna. Ongi pasatzeko bere emazte eta alabarekin, asko maite dutela eta urte askotarako.

• **Etxalar 1992**: "...eta olinpiadak ailegatu ziren. Biek presentatu eta litro bat «karro» irabazi zenuten. Zuentzat trofeorik haundiena. Eta hau edanez bat egin zenuten, herririk ziragarrienean...". Zure lagun misterioitsua.

• **San Martin** eskolako Gorka Herrera eta Javier Soria ikasleei, beuren osasuna hobetzea espero dugu. Sendatokian gaizki pasatzen ari dira istripu baten ondorioz. San Martin eskolako lagunak.

• **Berako** Fernando B. rentzat: Zutaz maite-mindurik nago. Klaseko neska baten partetik.

• **Mañolo** "maño - berriari", orain Zaragozan estudiantzen eh! Ju, ju, ju.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi
Gibel-gizena
Urdai azpikoa
Ahate-hegalak
Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

ZURE MAHAIARAKO AHATERIK HOBERENA

AMAIUR

sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa[®]



BENTA - BERRI Larruaren Etxea



Egunero irekia, goizeko
9etatik arratsaleko 7etara.



▼ Kazadorak, jakak,
galtzak, gonak,
berokiak, boltso
eta eranskinak

▼ Moda
saltzen dugu
prezio eta
kalitate ho-
berenetan

IBARDIN, Tfnoa: 630 708 - **BERA**



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

L e s a k a k o Iturria anaiak



ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ
GUREGANA:

*MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFE-
RIAK, MANPARAK ETA BEHAR
DITUZUN OSAGARRI GUZIAK
DITUZU*

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN